

Euskerearen Egunaren gerizpean, egun seinaladuaren bezpera honetan, Berrizko Udalak eta Labayru Fundazioak alkarlanean burutu dugun herri-ondarearen ataltxo bat dakargu gaur zuon aurrera: “Arrierreka. Uraren indarra”.

Euskerea, gure hizkuntza dakargu gomutara eta akordura Frantzisko Xabierkoaren egunaren bezpera honetan Berrizera. Gure hizkuntza egoera delikaduan dagoelako batetik, baina bestetik, herritarron borondatea dalako gure hizkuntzari aupada bat emotea, bizibarritze ahaleginean aurrera jardutea.

Baina euskaldunon, eta berriztarron, hizkuntza zaharra ez litzateke gauza handirik, hizkuntzaren atzean gizarte bat eta euskera hutsean garatu dan bizimodu bat ez balego. Mendez mendez, gizaldiz gizaldi lantzen, aldatzen, barritzen joan dan biziera bat, lanbide batzuk, gizarte bat egon ez balitz, hizkuntza hori ezpanetan erabili eta ingurua hizkuntza horren bidez interpretatu eta alkar aitu daben gizarte bat ez balego, hizkuntza hori, danik perfektoena izanda be, morfologia hutsa litzateke, azal eta itxura hutsa.

Zorionez gure euskereak bizirik dirau, euskal gizarteak, berriztarren gizarteak dirauen legetxe. Eta horregaitik zelebrazu geinke gaur, Berrizko erreka baten ibilbidean zehar, Oizetik behera datorren Arrierrekan zehar, azken mendeotan bizibarritu dan bizimodu bat euskeraz izan dala bergogoratzea.

Uraren indarra *Urzulon* hasten da eta ermita baten, *San Pedro txikin*, amaitu. Uraren indarra energia sortzeko gai izan da belaunez belaun, gure gizarte euskeraz pentsetako eta ingurua interpretatzeko gai izan dan legetxe. Eta euskeraz josi dau bizi izan dan inguru guztiko geografia.

Uraren, *ur* berbearen arrastua daukagu *Urzulon* edo *Ubillan*, kasurako.

Errotak, olak, makineteak izan dira jarduerak. Etxe eta auzoei izenak be emon deutsez horreek jarduerok. Errotak izan dira Errotatxu, Errotazar, Errotabarri edo Erroteta, kasurako. Eta Berrizen legez, Bizkaiko eta Euskal Herriko beste hainbat herritan be antzera.

Erroteari beste izen bat be emon izan jako lehenago, gaur gure artean galduago dagoana: *bolua*, eta hitz-alkartu bidez: bolun- edo bolin-. Erdarariko *bolinu* oinarri dauena. Horren arrastoa dogu: Bolunzar(buru) edo Bolunbarri etxe-izenetan.

Eta gure burdinola zaharrak, *ferreriak*, *ola* izenaz ezagutzen ziran lehenago gehienbat. Hortikoak ditugu Berrizen Olazar eta Olabarri, esaterako.

Eta makineteak, zentral elektrikoak, barriagoak. Izena bera be ez da asko ezaguna gutariko askorentzat. Uraren indarra erabilteko makina modernoagoak. Hamar zentral hidraulikoraino euki baditu Berrizen bere ibilbidean Arrierreka errekeak, hori da seinalerik agiriena berriztarrek ekimen handiko jentea izan dirala aurreko belaunaldietan be, natura baliabideei onurea, etekina aterateko.

Uraren indarra, errekan barrena, neurtzera etorri dira Berrizen eta bestetan herritarrek egin dituen obra batzuk: anteparak edo andaparak, ubideak edo ur bideratuak, ur-saltoak, konportak, presak, harzubiak (harrizko zubiak) eta beste.

Labayru Fundazioa pozarren dago Berrizko herriagaz bideo-lan hau egin izanagaz. Ez dedila izan lehenaren gomutagarri hutsa, ezpada etorkizun barri onuratsu baten zirrikagarri, geure buruari konfidantzea harturik, geroa hobeto labretan erakutsiko deuskuna.

Eskerrak, Labayru Fundazioaren izenean, lantalde osoari, berariaz Akaitze Kamiruaga eta Ziortza Artabe gure lankideei, Jesus Eguzkitza *Eguzki* esatari bardinbakoari eta ganerako guztiei. Eta eskerrak Berrizko Udalarari eta Bizkaiko Foru Aldundiari euren babesagaitik.

Adolfo Arejita.